

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

Oparirik
politena...



Kaixo herrikide!!!

Ia ziur, hau irakurtzen duzunerako Igeldo Tokiko Entitate Txikia izango da. Berri pozgarria inondik ere, hemendik aurrera, pixkanaka bada ere, bertako behar askori bertatik erantzuteko aukera izango baitugu. Ea ba denon

artean martxa ona ematen diogun!

Horrez gain, beste hainbat gertaera eta berri ere bildu ditugu: autobusa, neguko pala txapelketa, manifestaziorako deia, azken obrak, sexu erasoa...

Herriko eragileak burubelarri dabil-

tza lanean eta berritasunak daude gazteekin eta Ludotekarekin. IKEk ere bere sorreraren eta lehenengo proiektuaren inguruko azalpenak eman dizkigu.

Hori guztia Gabonetan gaudela ahaztu gabe! Egitaraua, atzean.



Autobusarekin konponbide eske

Azaroaren 15ean deialdia egin zuen Herri Kontseiluak autobus zerbitzua dela eta, Udala eta DBusi haserrea adierazteko. Prentsa ohar bat ere kaleratu zuen konponbide eske: «Ezarrita dagoen zerbitzua ez da betetzen eta beti gabiltza atzerapekin. Ez dakigu autobusa noiz iritsiko den, horrek dakartzan ondorio kaltegarri guztiakin. Egoera honen aurrean, eskaera zehatza egin diegu DBusi eta Olatz Yarza mugikortasuneko zinegotziari. Konponbide bat topatu dezatela».

Konponbide bila beraiekin hainbat bilera egin dituztela gaineratu dute, baina ez dutela ezer egin: «Bilera horietan adierazi zuten Igeldo eta Antigua lotuko litzuzkeen lanzadera bat jartzea aukera posible bat litzatekeela zerbitzua hobetzeko. Hala ere, hori lantzeko ere ez dira prest azaldu gerora. Horretaz gain, zerbitzua hobetzeko ez digute beste planteamendurik egin. Urte honetan guztian prest egon gara hobekuntza bat izango den edozein proposamen lantzeko, baina zain jarraitzen dugu

oraindik».

Eta berriz egiten diete dei arduradunei: «Egoera hobetzeko zerbitu egin behar du Udalak. Zerbitzu duin bat da eskatzen dugun gauza bakarra. Ez dugu pribilegiarik eskatzen, ezarrita dagoen zerbitzua betetzea eta gaur egun daukagun komunikazio arazoa konpontzea baizik. Behingoz, Udala jabetu dadila igeldoarrentzat autobusak duen garrantziaz eta zerbitzu duin bat eskaintzeko lanketa zintzoan hasi dadila».

Presoen aldeko manifestaziora joateko, eguneko plana

Behin betiko. Bakea. Konponbidea. Elkarbizitza mezuarekin, manifestazioa egingo da Bilbon urtarrilaren 11n Sarek deituta. Azken aldian ohiturak aldatu egin direla eta, «orain kosta egiten da autobusez denak Igeldotik batera joatea eta

asko kotxez gerturatzen dira umeak tarteko», plan berri baten proposamena luzatu dute deitzaileek. Egun osoko plan bezala hartu eta igeldoarrak Bilbon elkartzea izango litzateke asmoa. Bertan elkarrekin bazkaldu eta ondoren

manifestaziora batera joatea. Plana hobeto zehazten dutenean, informazioa ohiko bideetatik zabalduko dutela jakinarazi dute. Hori bai, modu batera edo bestera Bilboko kaleak betetzera joateko dei egiten dute.

Urtea bukatzerako sortuko da Igeldoko tokiko entitatea

Igeldoko Udalak ia 1.500.000 euroko aurrekontua izango du 2025 urtean. Azalpenak emateko Herri Batzarra egin zen urrian.

Aurreikuspen guztien arabera, Orri Informatibo hau idazterakoan, Igeldoko Tokiko Entitate Txikia (TET) abenduaren 17an sortzekoa zen. Donostiako Udalak egin beharreko zuzenketak eginda, Foru Aldundiaren esku utzi zuen espediente berriz urriaren 25ean eta onarpena ematekotan ziren abenduaren 17an.

Behin sortuta, hurrengo pausoak izango dira Foru Aldundiak Kudeaketa Batzordea (gestora) izendatzea, alderdiek Udal hauteskundeetan Igeldon lortutako emaitzen arabera (EH Bilduk 4; EAJk 1), eta gestorak lehenengo auzo batzarra egitea (Plenoa) TET martxan jartzeko. TET Batzordeko kideek jakinarazi dute beraiek prest azaldu direla orain arteko lanari jarraipena eman eta gestora hori osatzeko. Hala adierazi diete alderdiei.

Igeldoko Udalak 1.499.973 euroko aurrekontua izango du 2025 urtean.

Egin beharrekoak

Azken pausoen eta datozenen berri emateko, Herri Batzarra egin zen urriaren 20an.

TET sortzen denean, hurrengo pausoak edo egin beharrekoak honakoak direla adierazi zuten TET Batzordeko kideek:

- Egitura administratibo-juridikoa eraikitzen jarraitu (momentu honetan Donostiako Udaleko teknikari bat dago guztia martxan jartzen Igeldok teknikari propioa izan arte).
- Gure eskumenak gure gain hartzeko bideak aztertu (brigada, kontratuak...).
- Herri antolaketa mantendu eta hobetu (Batzordeak indartu).
- Langile propioak aukeratu.
- Igeldoko Udalaren egoitza berria-

ren proiektua landu (Eskola Zaharra).

- Donostiako Udalarekin izango ditugun harremanak zehaztu (Jarraipen Batzordea martxan jarri, hitzarmenak lotu...).
- Eskumen berriak lortzeko negoziaketan jarraitu (hirigintza, etxebizitza, hilerria...).

Hasierako lau langileak, lan poltsatik

Hasiera batean, Igeldoko Erakundeak lau langile izango ditu: Administrazio Orokorreko Teknikaria (%100), Arkitekto Teknikoa (%100), Administraria (%70) eta Teknikari Soziokulturala (%50). Aurrerago, bi langile polibalente izateko aukera geratzen da eskumen berriak hartzearekin batera.

Hasteko, lau langile horiek Donostiako Udaleko edo bestelako erakunde publikoetako lan poltsatik hartuko dira. Aurrerago, deialdi publikoa egin beharko du Igeldoko

Erakundeak lanpostu horietarako.

2025 urteko aurrekontua osatzen

Igeldoko Erakundea sortu eta lehenengo auzo batzarrean, 2025eko aurrekontuak onartu beharko dira. Hori horrela, TET Batzordeko kideak aurrekontua prestatzen ari dira. Herri Batzarrean, proposamenaren berri eman zuten eta begi onez ikusi zuten herritarrek. Azpimarratu zuten datorren urteari begira ez dela aldaketa askorik egiteko aukerarik izango.

Horrez gain, 2024 urtearen barruan sortzeak garrantzi handia zuela gaineratu zuten; «izan ere, 2024 urterako TETari dagokion inbertsioetarako dirua ere jasoko dugu: 291.000 euro».

Horiek esanda, 2025eko aurrekontuaren proposamena azaldu zuten:

- Zerbitzuak kontratuekin lotuta daudenez, momentuz dauden bezala mantendu beharko dira (ahal den neurrian kontratuak eten eta Igeldotik hasi).
- Diru laguntzak orokorrean mantendu egingo dira, baina zertxobait egokituko dira Igeldoko beharretara.
- Inbertsioak: beraien proposamenak azaldu zituzten eta herritarren ekarpenak ere bildu zituzten.

Pazientzia handia

TET Batzordeko kideak pozik daude azkenean Igeldoko TET sortzera doalako, baina herritarrei gogorarazi nahi die pazientzia handia eta denbora beharko dela guztia martxan jartzeko eta sakoneko aldaketak lortzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero: herrikontseilua@igeldo.eus / 606 311 734.

INBERTSIO PROPOSAMENAK

- Bideak berritu: Agiti, Buztinzuri, Lapabide, Tximistarri...
- Kultur etxea egokitu: igogailua, komuna, pintatu, terraza estali...
- Lizardi txukundu: iturria...
- Plaza/kaxkoa berritu. Parte hartze prozesu bat egingo da.
- Rokodromo txiki bat eskolan
- Eskolako kantxa estali
- Lokalak lortu, izan ditzakegun beharretarako: brigadarentzat, herriko ostatua...

Jubilatuak gustora daude ekintzen dinamikotasunarekin

Ikastaroak, ekintza kulturalak eta ibilaldiak egiten dituzte, besteak beste.

Jubilatu Elkartetik adierazi dutenez, urteko egutegia egiteko garaian, kontutan gehien hartzen duten alderdia aktibitateen barietatea da «gure bazkide eta jubilatuen beharrei hobeto erantzutea baita gure helburua». Jubilatuen parte hartzea zabalagoa izateko, aktibitate berriak eta desberdinak aurkitzen saiatzen direla gaineratu dute. Hori horrela, ikasturte berriaren errepasoa eginda, gustora daude ekintzen dinamikotasunarekin.

Alde batetik, hasieratik martxan dauden ikastaroak dauzkate: Pilates, mantentze gimnasia eta memoria lantzeko ikastaroa. Ikastaro hauek nahiko finkatuta dauzkate.

Bestetik, aurreko hasitako ikastaro berriak dauzkate: Musikoterapia ikastaroa (aurreko ikasturte bukaeraren probatu zen eta irailarekin jarraipena eman zaio) eta Autozaintza eta automasaje ikastaroa. Proba bezala, hiruhileko honetan eskaini da. Ikastaro honetan, masajea ikasteaz gain, nork bere buruaren autozaintza nola egin behar duen irakasten



Igeldoko dema-harria San Telmon ikusgai.

dute. Hamabost pertsonak parte hartzen dute eta datorren urteari begira, aurrera jarraitu edo ez aztertu behar dute.

Hainbat ekintza kultural, udazkenean

Udazkenean zehar, ekintza kulturalak ere egin dituzte Jubilatuek. Esaterako, Euskararen Eguna ospatzeko antolatu zen egitarauan parte hartu zuten Kantujirarekin, euskal abesti ederrenak herrian kantatuz.

Psikologiarekin lotuta eta adimen osasunaren barruan, 4 hitzaldi antolatu dituzte urtean zehar; azkenekoa azaroan, Adimen Artifizialari buruz.

San Telmo Museora bisita gidatua ere antolatu zuten azaroan. Azaldu dutenez, Gipuzkoa eta Euskal Herriko historiaren berri emateko hainbat objektu jasota daude museo honetan: argizaiolak, hila-riak, emakumeak erabiltzen zituzten burukoak, karlisten gerratetako armadurak eta, baita ere, Igeldoko Txalin dema-harria ere.

Udazkeneko aktibitateen barruan, Amaiurreko gazteluaren aztarnak eta historia ezagutzeko aukera izan dute. Baztan/Elizondo bisita gidatua ere egin zuten eta ondoren, Donezteben bazkaldu zuten.

Ibilaldiak eta bazkaria

Hilero ibilaldiak eginez jarraitzen dute, Igeldoko eta inguruko auzotako bideak ezagutu eta paraje eder hauetaz gozatzeko. Aktibitate honetan hamar bat pertsonak hartzen dute parte.

Azkenik, urteari bukaera ona emateko, bazkari bat antolatu dute herriko jubilatuentzat. Abenduaren 14an izango da Calonge sagardotegian.

Pala Txapelketa aurrera doa inoizko parte hartze handienarekin

Neguko Pala Txapelketako 6. edizioa jokatzeko ari da. Azaroaren 15ean hasi zen txapelketa eta inoizko parte hartze handiena izaten ari dela azaldu dute antolatzaileek. Denera 55 bikote ari dira parte hartzen. Mutilak lehenengo mailan 9 bikote, mutilak bigarren

mailan 28 bikote eta neskak 18 bikote. Igeldokoak 8 bikote dira.

Final laurdenak eta finalerdiak otsaila erdi-martxo hasieran jokatuko dira eta finalak, berriz, martxo erdialdera.

Partiduak asteburuetan jokatzen dituzte. Ostiraletan, arratsal-

deko 18:30etatik aurrera 3 partidu izaten dira eta larunbatetan, goizeko 9:00etan hasita beste lau partidu.

Urtero bezala, antolatzaileek dei egiten diete herritarrei frontoira gerturatzeko partiduak ikustera, «giro bikaina izaten da eta!».



Abenduaren 4an kontzentrazioa egin zen plazan herrian izandako sexu erasoa salatzeko eta erasotuari babesa adierazteko.

Herritarrak kalera atera ziren sexu erasoa gaitzestera

Abenduaren 2an gizonezko batek herriko emakume bati sexu erasoa egin zion Igeldon eta biharamunean herritar ugari kontzentrazioa egin zuten plazan. Gertatutakoa salatu eta erasotuari babesa adierazi zioten elkartutako dozenaka herritarrek. Argi adierazi zuten: «Eraso matxistarik ez erantzunik gabe!».

IKotik «gaitzespenik irmoena»
«IKOk gaitzespenik irmoena adierazi nahi du abenduaren 2an langile baten aurka izandako sexu erasoaren aurrean, eta babesa eta elkartasuna adierazi nahi dizkio langile horri» adierazi dute ohar baten bidez.

Eta honakoa gaineratu dute: «Halaber, gure gaitzespena adierazi nahi

dugu oraindik nagusi diren indarkeria matxistaren eta genero desberdintasunaren jarrera ororen aurrean. Baita beste pertsona baten askatasun sexualaren aurka egiten den edozein ekintzaren aurrean ere. Horrelako gertaerak gure inguruan, gure herrian edo beste edozein lekutan gerta ez daitezela lan egingo dugu. Erasos matxistarik ez erantzunik gabe!!!».

«Azkenean, badugu espaloia»

Azaroaren erdialdetik kaxkoa eta kanpina lotzen dituen espaloia berria dauka Igeldok. Hainbeste urtetako eskariari azkenean erantzun zaiola eta pozik daude Herri Kontseiluko kideak. Aspaldiko behar bati erantzun zaio eta poztekoa da». Dena dela, azpimarratu dute espaloia ez dela nahi bezala egin, dena alde beretik egitea eskatu zuen Herri Kontseiluak, besteak beste, «eta horrez gain, oraindik telefonoko posteei erdi-

erdian jarraitzen dute». Azken kontu hori jakinarazi diote Donostiako Udalari eta lehenbailehen mugitzeko eskatu diote telefono konpainiari.

Plazako parkea berrituta

Plazako jolas parkea egoera txarrean zegoen azken urtean. Lurra erabat puskatuta eta hainbat jolas erdixka. Donostiako Udalari hainbat eskaera egin ondoren, azaro erdialdean berritu zuten hori ere.





IKEk egindako azken batzarreko irudia.

IKE IGELDOKO KOOPERATIBA ENERGETIKOA - KONTSEILUKO KIDEAK:

Lehenengo proiektua: fotovoltaikoak

Energia berriztagarria oinarri izanik, Igeldoko enegia soberania ahalik eta handiena izateko asmoz sortu da IKE. 76 bazkide dira gaur egun eta lehenengo proiektua martxan jarri dute. Eguzki plakak jarriko dituzte hainbat bazkideren teilatuetan. Etorkizunean, proiektu gehiago etorriko dira.

Gaian kokatzeko, kontatuiguzue nondik datorren IKE.

Komunitate energetikoak sustatzeko Euskal Herrian zeuden ereduak aztertu ondoren, talde sustatzailean bildu ginenok garbi geneukan enpresa energetiko handien hatzaparretatik alde egiten saiatu behar girela eta irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bat bultzatu behar genuela Igeldon.

Aukera hau lehenestu genuen, herritarren kooperatibaren eta enpresa handien artean dagoen alde nabarmenena pertsona bakoitzak boto bat izateko printzipioa arautzen duen eredu kooperatiboan oinarritzen zelako, eta, ondorioz, herrian bertan ekoiztu eta kontsumituko dugun energiaren kontrol osoa gure esku izango dugulako.

Herri Kontseiluarekin ere hitz egin zenuten.

Lehen erabaki hori hartuta, bigarren pausoa Herri Kontseiluarekin biltzea izan zen. Gure asmoak aurkeztu, herrian Goienerrekin parte hartze prozesu bat

martxan jartzeko laguntza eskatu, eta beraien babesak jaso nahi genuen. Tokiko Entitate Txikia (TET) eratzeke prozesuan zeharo murgilduta zeudenez, Igeldoko TETa eratu arte, bide hau jorratzeko ardura gure esku utziko zutela aipatu, bere babes osoa agertu, eta parte hartze prozesua ordaintzeko ekonomikoki laguntzeko aukera eskaini ziguten, baldin eta dirulaguntzen bidez dirua lortzen ez bagenuen.

Bigarren pausoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Donostiako Udaleko arduradunekin hitz egitea izan zen eta, kasu honetan ere, biek ala biek agertu ziguten beraien babesak eta laguntza.

Ondoren, herrira zabaldu zenuten.

Aipatutako babesekin aurrera jo eta lehen batzarra deitu genuen. Lehen bilkura horretan interesa agertu zuten hogeita bost pertsona bildu ginen eta pixkanaka antolatzen hasi ginen. Bigarren batzarra, hirugarrena... Igeldoko Komunitate Energetikoa eratzeke data jarri

eta aurrera jarraitu genuen: nola osatu kooperatiba, zenbateko sarrera jarri, pobrezia energetikoan egon zitezkeen herritarrei zer nolako erantzuna eman, beste herritan zer nolako prozesua jarraitu duten aztertu...

IKE sortu zenuten, helburu argiarekin.

IKE gure herrian autokontsumorako jatorri berriztagarriko energia ekoizteko eta, pixkanaka erregai fosilak baztertuz, herriko energia soberania ahal genuen handiena izateko asmoarekin sortu genuen. Beraz, hasiera-hasieratik egungo energia-eredua aldatzeko konpromisoa hartu genuen, pausoz pauso, honako helburuetara iristeko: Igeldon ere ahal dugun energia berriztagarri gehien lortzeko, trantsizio sozio-ekologikoa sustatzeko, ahal dugun neurrian gure bizikaltatea mantenduz energia-kontsumoa murrizten saiatzeko, igeldotarren izaeran sustraitua dugun auzolanaren bidez kostuak murriztu eta faktura elektrikoan aurrezteko, pobrezia energetikoan bizi diren gure bizilagunen inklusioa sustatzeko eta herritar guztien gizarte kohesioa bultzatzeko.

76 bazkiderekin hasi duzue ibilbidea.

Kooperatiba eratzekeo batzarrera jende asko etorri zen, eta partaide izateko 100 euroko sarrera ordaindu ondoren, herriko 76 familia eta enpresa txikiek eman zuten izena. Egia esatea nahi baduzue, lehen pauso honetan hainbeste bazkide lortzeak izugarriko poza eman zigun, jakitun izanda, beste herrietako esperientzietan oinarrituta, denborarekin proiektu gehiago burutzen doazen heinean jende gehiago animatzen dela. Gainera, poza bikoitza izan zen, bazkidetu ziren herritarren artean oso jende anitza zegoelako eta horrek, gure ustez, herriko kohesio sozialean garrantzi handia duelako. Bestalde esan, beste eredu batzuetan ez bezala, IKEko bazkideak libre direla nahi duten komertzializatzailearekin energia kontratatzekeo eta urteroko proiektuan sartuko diren edo ez erabakitzeko.

Eta lehenengo proiektua iritsi da.

Kooperatiba eratu ondoren, lehen proiektua bideratzeko lanean hasi ginen. Denek esaten ziguten errazena herriko eraikin publikoetako teilatuetan proiektu fotovoltaiko bat martxan jartzea zela eta horretara

“Dagoeneko
76 bazkide gara IKEn,
baina beste herrietako
esperientziak
ezagututa, badakigu
pixkanaka jende
gehiago hurbilduko
dela. Animatu,,
eta parte hartu!

bideratu genituen gure indar guztiak: fakturak eskatu eta familia bakoitzak zenbat energia gastatzen zuen ikusi, lehen pauso honetan eskura geneukan espazioaren arabera familietako beharrak arintzen hasteko zenbat energia ekoiztu erabaki, aurrekontuak eskatu, dirulagunzak aztertu... Donostiako Udalaren jarrera gorabeheratsua izan da prozesu honetan zailtasun handiena, baina esan beharra dago bidean sortu zaizkigun arazoei aurre egiteko beti izan dugula GFAko teknikarien, Goienarren arduradunen eta kooperatibako bazkideen laguntza.

Laster ikusiko ditugu plakak jarrita.

Bai, hilabete honetan hasiko gara gure lehen proiektua izango den 124kw/p-ko instalazioa martxan jartzen, beren teilatuak eskaini zituztenen artean Goienerrekin aukeratu dituen bazkideen etxeetan.

Proiektu berriak ere izango dituzue.

Lehen instalazioa urte berrirako martxan izango delakoan, hasi gara hurrengo proiektua izango dena lantzen. Eta bitartean, laster jakinaraziko dizuegu hilabete honetan autokontsumoaren inguruko formazioa noiz egingo dugun. Formazio hitzaldi horiek herritar guztientzako irekiak izango dira, izan edo ez IKEko bazkide.

TETarekin elkarlanerako gogoz zaudete.

Bestalde, lehen aipatu dugun moduan, batetik, TETA noiz eratuko den eta lehen transferentziak noiz iritsiko diren zain gaude, IKE eta TETaren arteko elkarlana nola bideratuko dugun erabakitzeko, inguruan ditugun esperientzia guztiek esaten baitigute bere babes eta inplikazioa ezinbestekoak direla goian aipatutako helburuak lortzeko.

Igeldo hobeago eta berriztagarriago bat lortzeko bidean...

Bukatzekeo, dagoeneko IKEko bazkideak zareten guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu gudan jarri duzuen konfiantzagatik, eta oraindik IKEko proiektura inguratu ez zareten herritarrei dei bat egin nahi genizueke izena eman dezazuen eta fakturan aurreztetik haratago doan proiektu honetara hurbiltzeko, ziur gaudelako denon artean Igeldo hobeago eta berriztagarriago bat lortuko dugula.

Eskolan egindako lana erakusgai jarri dute oporrak hartu aurretik

Hiruhileko honetan zehar, ingurua eta mundua arakatzen ibili dira Eskolan, eta orain, ikasitakoa zabalteko ordua iritsi zaie. Eskolako guraso zein igeldotar guztiei erakutsi nahi diete landutakoa.

HH 4-5 mailako ikasleek itsasoaren zaintzaz ikasitakoa eta material birziklatuarekin sortutakoa erakutsi diete beren gurasoei abenduak 4 eta 5ean Itsas Aurrean. Horretarako, erakusketa gidatu bat osatu zuten eta ikasleak izan ziren guasoen gidari. Amaitzeko, elkarrekin meriendatu zuten etxeko bizkotxoekin.

1. zikloko ikasleek, gure ingurua nola garbi eduki landu dute. Igeldon zehar zenbait kartel zintzilikatu dituzte, herria garbi mantendu ahal izateko. Horretaz gain, Orri Informatiboarekin batera, jarraibide bat jasoko dute herritar guztiek.

2. zikloko ikasleek, sites bat argitaratu dute landutako gauza guztiekin: datuak, grafikak, bideoak... Buru belarri aritu dira unibertsoa, eguraldia, klima... ikasten. Hemen QR-a.

Azkenik, 3. zikloko ikasleek, "La mètèo Climatique" museoa sortu dute eskolako areto eta liburutegian. Abenduaren 13an museoa ikusteko aukera izan zuten gurasoek ikasleen gidaritzapean. Bertan, munduko klimak eta hauek lurrean duten eragina aztertu dute, baita urtaroak ere.

«Ikusten duzuen bezela, lehen hiruhilekoa emankorra izan da, espero dugu zabalkunde guztiak gustokoak izatea», adierazi dute.

Egun seinalatuak

Egun seinalatuak ere izan dira eta horien inguruan ekintza desberdinak egin dituzte. Azaroaren 25ean indarkeria matxistaren aurkako egunean, tratu onen inguruko lanketa egin zuten, besteak beste. Abenduaren



3an, Euskararen Eguna ospatzeko hainbat ekintza egin zituzten: taloak, jolasak, bertsoak, pelikulak ikusi...

Agurtzeko, kantua eta luntxa

Abenduaren 20an oporrak hartuko dituzte Eskolan. Aurretik, ordea, kaxkoan zehar kantari ibiliko dira ikasle, irakasle eta gurasoak. Ondoren, guraso elkarteak antolatutako luntxa izango dute.



Denborapasak

Erupzio baten albisteak

1980an, Saint Helens mendiak erupzio handi bat izan zuen, ehun urte baino gehiago lokartuta egon ondoren.

Bete egunkariko albiste honetan falta diren bost xehetasunak.

errauts

zeruan

ibai

abiadura

08:32an


Egunerokoa

AZKEN BERRIA: EZTANDA SUMENDIAN

Saint Helens mendiak eztanda egin du gaur goizean Sekulako -lainoa irten da sumenditik eta 26 km joan da zuzenean gora.

Gero, sumendiak fluxu piroklastikoa askatu du, hau da, harriz, gasez eta errautsez osatutako bat, eta lur gainean joan da ziztu bizian.

DATA: 1980ko maiatzaren 18a



Fluxua 130 km/h-ko izatera iritsi da, eta 700 °C-ko tenperatura.

8

Gazteekin eta Ludotekarekin berritasunak datoz

Gazteen prozesua bukatu berri da eta Itsas Aurreko espazioa erabiltzen hasi dira asteburuetan. Ludotekarekin, berrantolaketa bat egingo da.

Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren sorrera gerturatu ahala, Batzordeak indartuz eta martxa hartuz doaz. Batzorde Soziokulturala, esaterako, gazteekin eta Ludotekarekin dabil lanean orain.

Gazteei dagokienez, Itsas Aurre erabiltzeko aukera eman zaie eta erabilera hori behar bezala zehazteko prozesu bat eraman dute aurrera Hezten aisialdi taldeak gidatuta. Bost saio egin dituzte denera eta azkeneko abenduaren 13an izan zen. Bertan gazteak eta Batzordeko kideak elkartu ziren berriz. Gazteen plan-teamendua jaso eta funtzionamendurako oinarriak adostu zituzten. Dagoeneko, kultur etxeko espazioa erabiltzen hasi dira. Gazteek, ostiral arratsaldetik igandera izango dute Itsas Aurre erabiltzeko lehentasuna (betiere, ekintza jakin, festa edo antzeko zerbaitez ez badago). «Hala ere, lehentasuna izateak ez du esan nahi gainerako eragileek edo herritarrek momenturen batean sartzerik izango ez dutenik, eta hori jakinarazi zaie», adierazi dute batzordeko kideek.

Batzordekideak pozik daude pro-

zesuak emandako emaitzarekin eta gazteek izan duten jarrerarekin/egin duten lanarekin. Aukera honekin, azken urtetan izandako hutsune bati nolabaiteko erantzuna emango zaio-la ere azpimarratu dute.

Ludoteka goiko pisura

Azken urtean espazio beharra adierazi die guraso batzuk Herri Kontseiluari, ume asko daudela eta Ludotekan kabitzen ez direla adieraziz. Batzorde Soziokulturalak gaiari heldu dio eta hainbat bilera egin ondoren, Ludoteka goiko pisura pasatzea erabaki da.

Moldaketa honekin, 12 urtera bitarteko umei zerbitzua eman nahi zaie. Zehazki, egungo Ludoteka piano gelarekin trukatu da (espazio finkoa izango da) eta goiko pisuko erdiko gunea ere erabilgarri jarriko da umeentzat (ikastarorik ez dagoenean). Erdiko gunea hau hainbat jardueratarako izango da (umeak, gazteak, ikastaroak...), beraz, erraz jarri eta kendu daitezkeen gauzak egongo dira. Behin erabilera bukatuta, espazioak libre geratu beharko du. Batez

ere, ume koxkorragoei zuzenduta izango da espazio hau. Hala ere, erabilera eta funtzionamendu arauak zehazten ari dira oraindik. Gabonen ondoren martxan izatea espero da.


Itsas Aurre erabiltzeko oharra

Zenbait kasutan, Itsas Aurrearen erabilera ez da behar bezalakoa izan: argia piztuta utzi, berogailua itzali gabe, sarrerako atea irekita...

Honen aurrean, kultur etxea ondo erabiltzeko eskatzen diete herritarrei. Kontuan hartu beharreko oharra gogorazi dituzte:

- Sarrerako atea beti itxi behar da. Sarrera/irteera bakoitzean, itxi.
- Kanpoko argia pizten duenak itzali dezala.
- Berogailua itzali.
- Kultur etxe osoan lasai ibili behar da. Jolas lasaia. Balorik ez.
- Sarrerako gunean bakarrik jan daiten.
- Bilera edo ekintzaren bat egiteko, aurrez Karmeleri eskatu (606311734).
- Txapelatik giltza hartzen duenak Karmeleri abisatu behar dio.

Denborapasak



UDAZKEN FESTA

'Mikra' ikuskizunak sekulako arrakasta

Urriaren 26 eta 27an Udazken Festa ospatu zen. Aurten, berritasun moduan, Mikra akrobazia ikuskizuna ekarri zen Lugaritzen laguntzari esker, eta sekulako arrakasta izan zuen. Bertako eta kanpoko ia 200 lagun elkartu ziren frontoian. Eta benetan merezi izan zuela adierazi zuten ikuskizunaz gozatze-
ra gerturatu zirenek.

Larunbat iluntzean izan zen hori, eta igandean, ohiko egitarauari jarraitu zitzaion. Goizean azoka izan zen eta oso giro polita egon zen beste behin. Denetariko postuak izan ziren bertan: barazkiak, txerriak, esnekiak, gozoa, zukuak, mermeladak, loreak, belarrak, poltsak, bitxiak eta apaingarriak, eskuz egindako larruzko oinetakoak...



Azoka girotzeko, kantujiran ere ibili ziren jubilatuen eskutik. Ondoren, bazkaria egin zen herriko jubilatuen omenduz. Omenaldi berezia ere jaso zuten aurten 85 urte betetakoek. Hain zuzen, hiru izan dira: Ramoni Arrillaga, Ruperto Ortega eta Alfonso Zayaz. Denera 149 heldu eta 8 ume elkartu ziren bazkarian. Jubilatuen 111 izan ziren.

Bukatzeke, talo goxo-goxoak egin zituzten urteko usadioari hutsik egin gabe!



GAU BELTZA

Beldurrarekin jolastuz

Aurten ere Gau Beltza ospatuz agurtu zuten ume eta gaztetxoek urria. Beldurrarekin jolastuz, hainbat ekintza egin zituzten arratsaldean zehar. Lehenik, mozorrotu eta aurpegiak margotzeko tartea izan zen. Ondoren, HH mailako umeentzat ipuin kontaketa egon zen eta LHkoentzat pista jolasak. Herriko gaztetxoek laguntza handia eman zuten ekintzak aurrera eramaten. Luntx batekin eman zioten bukaera festari.



EUSKARAREN EGUNA

Euskara erabiliz, gozatu!

Abenduaren 3an Euskararen Eguna izan zen eta urtero beazala, ekintza desberdinak antolatu ziren egunaren bueltan.

Azaroaren 29an umeentzeko pelikulak egon ziren ikusgai eta biharamunean, Gozaldia Egunarekin bat eginez, eskaintza zabala izan zen: sexologia gaztetxoentzat, "Txuri-beltza da ta..." emanaldia familientzat eta Dana D'Caprichoren kontzertua mokadu eta guzti. Igandearekin eman zitzaion bukaera egitarauari kantujira eta III. Euskaldun Peto lehiaketarekin. Herriko lau talde aritu ziren lehian. Lehia estua izan zen eta gazteak fin ibili ziren, baina azkenean helduak izan ziren nagusi. Beste behin ere, argi geratu da euskara erabiliz gozatu egiten dela!



GABONAK IGELDON 2024

ABENDUAK

14

ENTSEGUA ETA TAILERRA

16:00TAN

(MERIENDA EMANGO ZAIE PARTE
HARTZEN DUTEN HAURREI)

ABENDUAK

22

ENTSEGUA ETA TAILERRA

16:00TAN

(MERIENDA EMANGO ZAIE PARTE
HARTZEN DUTEN HAURREI)

ABENDUAK

24

GABON ESKEA

13:30TAN HASIKO DA PLAZATIK

20:00TAN OLENTZERO ETA
MARI DOMINGIREN ETORRERA

ABENDUAK

31

GABON ESKEA

13:30TAN HASIKO DA PLAZATIK

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

OHARRA

ABENDUAK 23, ASTELEHENA

Puzgarriak

10:30-13:30 frontoian.



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

